

Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalearen historia politikoa (1963-1981)

(Political history of the Basque nationalist movement in the Northern (Continental) Basque Country (1963-1981))

Urteaga Olano, Eguzki

Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Soziologia 1. Saila. Los Apraiz, 2.

01006 Vitoria-Gasteiz

eguzki.urteaga@ehu.es

Jaso: 14.07.2003

Onartu: 20.07.2012

BIBLID [1136-6834 (2012), 38; 1055-1077]

Zein dira iparraldeko mugimendu abertzaleak bere historia politikoan zehar ezagutu dituen eraldaketa nagusiak? 1963tik 1981era doan epea hiru garaietan zatitu daiteke. Lehen epearen (1963-1968) ezaugarriak garrantzitsuena mugimenduaren sorrera bada, bigarren fasea (1968-1974), funtsean, norabide anti-errepresiboaren zein gazte mugimendu alternatiboaren agerpenaren unea da; hirugarren garaian (1974-1981), mugimenduak, sozialismo zein borroka armatuaren bidea hartzen duelarik.

Giltza-Hitzak: Mugimendu abertzalea. Historia politikoa. Sozialismoa. Gatazka. Borroka armatua.

¿Cuáles son las principales mutaciones que ha conocido el movimiento nacionalista vasco a lo largo de su historia política? Pueden distinguirse tres periodos. Si la primera fase (1963-1968) se caracteriza por la creación del movimiento nacionalista, la segunda etapa (1968-1974) corresponde a su orientación hacia la lucha anti-represiva y a la creación de un movimiento alternativo, mientras que el tercer periodo (1974-1981) está marcado por su adhesión al socialismo y su utilización de la lucha armada.

Palabras Clave: Movimiento nacionalista vasco. Historia política. Socialismo. Conflicto. Lucha armada.

Quelles sont les principales mutations qui ont traversé le mouvement nationaliste basque au cours de son histoire politique? Durant la période allant de 1963 à 1981, trois époques peuvent être distinguées. Si la première phase (1963-1968) se caractérise par la création du mouvement nationaliste, la seconde étape (1968-1974) correspond fondamentalement à son orientation vers la lutte anti-répressive et à la création d'un mouvement alternatif; la troisième période (1974-1981) étant marquée par son adhésion au socialisme et son recours à la lutte armée.

Mots-Clés: Mouvement nationaliste basque. Histoire politique. Socialisme. Conflit. Lutte armée.

1. SARRERA

Ipar Euskal Herriko abertzaletasunari buruzko ikerketek funtsean hiru ikuspegi hobetsi dituzte. Alde batetik, abertzaletasuna gertaera sozial eta politikoa da, Forné-ren *Euskadi, nation et idéologie*¹ liburuan islatzen den bezala. Beste aldetik, epe zehatzak finkatu dituzte: lehenengo liburuak (Davant, Apalategi, Goyhenetche) 1970. hamarkadakoak badira, azkenekoak 1990. hamarkadan idatzitakoak dira, Cassan-en lanarena² kasu. Azkenik, alor guztiak une berean aztertzen dituzte, alegia, politikoa, kulturala, ekonomikoa zein soziala. Baina, ez dago 1963tik 1981era iparraldeko mugimendu abertzalearen historia politikoa jorratu duen lanik. Beraz, artikulu honetan planteatzen den galderak zera dio: zein dira ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak bere bilakaeran ezagutu dituen eraldaketa nagusiak? Nere hipotesiaren arabera, 1963tik 1981ra doan epea, hiru garaietan zati daiteke. Lehen epearen (1963-1968) ezaugarriak garrantzitsuena mugimenduaren sorrera bada, bigarren fasea (1968-1974), funtsean, erreprezioaren kontrako norabidea zein gazte mugimendu alternatiboaren agerpenaren unea da; hirugarren garaian (1974-1981) mugimenduak sozialismo zein borroka armatuaren bidea hartzen duelarik.

2. MUGIMENDUAREN SORRERA ETA BERE ARRAZOIAK (1963-1968)

Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalea Enbata erakundearekin hasten da 1963an, horretarako arrazoiak politikoak, kulturalak eta ekonomikoak direnean.

2.1. Sorrera faktoreak

2.1.1. Arrazoi politikoak

Mugimendu abertzalearen sorreraren zergati politiko erabakigarriak hiru izan dira: 1) hego Euskal Herriko mugimendu abertzalearen eragina, 2) deskolonizazioa eta 3) europar eraikuntza.

Hain zuzen ere, ikerlari guztiak hegoaldeko mugimenduaren eragina erabakigarria izan dela diote. Lehen errefuxiatuen etorrera 1936ko gerra zibilaren osteko izan da eta, ondoren, Enbata-ko kide izango diren askok, Abeberry-k barne, beraien kontzientzia nazionalaren agerpena 1936ko errefuxiatuekin edukitako harremanekin lotzen dute. Transmisioa, jarduera kulturalaren bidetik gauzatu da, errefuxiatuak erakunde kulturaletan franko konprometitu baitira. Zehazki, 1950. hamarkadaren amaieran iparraldera etorri diren errefuxiatuek, eragin handiena eta zuzenena ukan dute. Oro har, ETako kideak dira eta beraien eragina bi maila-

1. FORNE, J. *Euskadi, nation et idéologie*. Toulouse: CNRS, 1990.

2. CASSAN, P. *Le pouvoir français et la question basque. 1981-1993*. Paris: L'Hamattan, 1997.

tan sumatu da: Enbataren definizio zein egitasmo koherentea osatu eta iparraldeko mugimendua egituratu eta antolatu zuten.

Horretarako, ETAko kideen eta iparraldeko militanteen arteko harreman zuzen bezain sarriek, garrantzizkoak izan dira. 1962tik aurrera topaketen maiztasuna areagotzen joan da, besteak beste, Haran, Labéguerie eta Txillardegiren artean. Enbataren sorreran, Madariagaren presentzia (ETAko zuzendarietarikoa) adierazgarria da, ETAk ahalegin guztiak egin zituelako Enbataren osaketa sendotzeko. Horren arrazoia Zutik aldizkarian aurki daiteke: ETAk Enbataren bitartez, "benetako eta erabateko batasun nazionala" lortzeko aukera ikusten du, "gure herriaren askatasun osora iristeko"³.

Hego Euskal Herriko mugimenduarekin batera, deskolonizazioaren eragina aintzakotzat hartzea ezinbestekoa da. Eugène Goyhenetche-ek dioen bezala, "Indotxina eta, batik bat, Algeriako gerrek, kolonialismoak euskal gazteengan nazka sortu du, ikusiz, azken finean, gobernu frantsesak Algeriaren alde egiten zuela, euskaldunei autodeterminazioa ukatzen zien bitartean"⁴. Abeberry-k, ideia hori baieztatzen du: "Algeriako gerraren eragina, soldaduska egitera deiturik izan diren euskaldun batzuen parte-hartzearekin, handia izan da gure kontzientzia nazionala sortzerakoan, bere independentziarentzako borrokatzen zen herri horren aurrean"⁵. Hastapenean sentibera zen identifikazioak itxura politikoa hartu du ondoren, Enbatako kideek erabiliko dituzten hitzek islatzen duten moduan: "askatasun nazionala", "barne kolonialismoa" ala "herri zapalkuntza".

Bi arrazoiengatik, deskolonizazioaren eragina are eta garrantzitsuagoa izan da. Batetik, Indotxina, Algeria zein ipar Euskal Herria Estatu frantsesaren barruan zeuden. Beraien ekonomia eta azpi-garapen industrialak bereziki, eta erdigunearen araberrako menpekotasun politikoa azpimarragarriak dira. Larzabal-i jarraituz, esan daiteke hirugarren-munduko herriek beraien independentzia lortzeko burutu dituzten borrokek Frantziako gutxiengo nazionalen narradura handitu dutela. Bestetik, 1960. hamarkadan, Frantziako zazpi koloniek independentzia lortzeak, "frantses Estatuaren singletasun eta zaurgarritasuna erakutsiko du, eraso-gabea zein ezin suntsituzkoa bazirudien ere, eta zeuden egitura politikoak igarokorrak eta iraunkor ezak direla iradokiko du"⁶. Ondorioz, gutxiengoek independentziara edota autonomiara iristeko aukera ikusi dute. Hor dira frogak gisa, Britainian, Korsikan eta Okzitanian agerturiko aldarrikapen nazionalak.

Azkenik, Enbataren sorreran europar eraikuntzaren garrantzia aipatzekoa da, europar ideala irudi dutelako. Davant-ek dioen erara, "Enbatako gazteek pentsatzen dute Europa politikoa laister egin eta eskualdatu behar dela, batez ere De Gaulle Lehendakariaren berehalako irteerarekin baita Francorenarekin ere.

3. ZUTIK, 1963-ko Aberri Egunean argitaratutako aldizkaria.

4. GOYHENETCHE, E. *Le Pays Basque*. orr.557.

5. ABEBERRY, J. Arte 1994-ko azaroaren 15-a, 19.30-etan.

6. JAMES, E. *Hills of conflict. Basque nationalism in France*. Reno: Nevada University Press, 1994, orr.135-136.

Espainia demokratizatu eta Merkatu Komunean sartuko da. Bidasoako lotsaren pareta desagerraraziz, Euskal Herria batuko da, egintzan, zuzenbidean baino lehenago izanez: instituzionalizatzeko, nahikoa izango da Europako eskualde ofiziala izan dadin. Horrez gain, hegoaldean prest daude zeren jadanik EAJ zegoen eta 1959ean ETA mugimendua sortu da. Gainera bi erakundeetako hainbat zuzendari lagunak dira”⁷. Beraz, orainaldian ezer itxaron ezin badaiteke, etorkizunarekiko erabateko baikortasuna ageri da, besteak beste, europar eraikuntzari esker.

2.1.2. Arrazoi kulturalak

Faktore kulturalak ulertzeko, garai hartako testuinguru kulturala aztertzea funtsezkoa da. Izan ere, ipar Euskal Herrian, 1960ko hamarkadan, biztanleri euskaldunaren pixkanakako jaitsiera nabaritzen da. Eragile batzuek euskal hizkuntza zein kulturaren desagerepenaren arriskuaz mintzo dira. Epe motzean, euskara galdua ikusten da, praktika oraino anitza izan arren, batik bat barnealdean.

Beharakada etengabeak arrazoi asko ditu, hala nola, Hezkuntza Nazionalak zein administrazioak euskarari bigarren mailako estatusa eman izana, ez baitu ofizialki ezagutzen. Orokorki, hizkuntza eta kultura euskaldunak ez dute bizitza publikoan tokirik eta, ohizko gotorleku izan diren eliza zein familiak, izateari utzi diote. Horrez gain, “gazteengan, euskarak ez du gehiago prestigiorik eta gurasoak beraien haurrei ez irakasten hasten dira. Zaharren afera bat bilakatzen da”⁸. Testuinguru horretan, Enbata, Bordale, Paris ala Tolosan dauden ikasle ez euskaldunek eramandako gaitzespen eta etsipen altxatze bat izango da. Izan ere, “lehenik, euskal herritar ez-euskaldunduak ukitzen ditu, beraien ebakuntza kulturala jasaten baitute”. Bestela esanda, egoera kulturalaren problematizazio politikoa eta, oro har, nortasun kulturalaren instrumentalizazioa, lehenik norberaren euskalduntasunarengandik urrun direnek egin dute, beraien nortasunarekiko jarrera erreflexiboa edukitzeko gai izan baitira, azkeneko hau errekurtsio bilakatuz.

Problematizazioaren ondoren, egoeraren erantzuleak bilatu dira eta, nagusia, Estatuaren politika kulturala dela diote. Frantziako gobernuek praktikan jarritako politika kulturalari so egin ezker, zerbitzu publikoek, hau da, eskolak, enpresa publikoek edo armadak, euskal kultura zein hizkuntzari tokirik uzten ez diotela ohartzen gara. Preseski, lehen aldarrikapenak, Hezkuntza sisteman euskara sartzearen inguruan egingo dira. 1951an, Mendiette eta Errecart-ek Deixonne legearen osaketan zein onarpenean parte-hartu dute. Lege horrek, euskara, bretoiera, korsikarra eta katalandarraren irakaskuntza onartzen du, beti ere jarduera zuzenduen barruan. Baina, ez da inoiz gauzatu izan. Ondoren, 1958 eta 1973ren artean, gutxiengo nazionalen legebiltzarkideek 20 lege egitasmo aurkeztu dituzte, bakar bat onartua izan gabe. Horrek, Goyhenetche-i idatziazten dio, “Frantzia dela Europako eta, behar bada, munduko herrietatik, hizkuntza eta

7. DAVANT, J-L. *Histoire du peuple basque*. Bayonne: Elkar, 1993, orr.161.

8. DAVANT, J-L., *Histoire du peuple basque*. Bayonne: Elkar, 1993, orr.162.

kultura gutxituei tratu txarrena ematen diena, ez baitie kasurik egiten, basakeriaz gudukatu ostean”⁹.

Eragileek ere ikuspegi bera dute Estatu frantsesaren politika zentralista arbuaitzen dutelako, ez baititu gutxiengo nazional zein kulturalen eskubideak ezagutzen. Enbata aldizkariaren lehen zenbakian irakur daitekeen bezala, “gaur egun, adibidez, gure hautetsiek euskararen irakaskuntza eta bere erabilera irratietan eskatzen dutelarik, Parisek ezezkkoa dio ala elkorrena egiten du”¹⁰.

2.1.3. Arrazoi ekonomikoak

Funtsean bi motatakoak izan dira: egoera ekonomikoa eta Estatu frantsesaren politika ekonomikoa.

Ipar Euskal Herriko egoera ekonomikoa sektoreka aztertuz, nekazaritzak iparraldeko jendetza aktiboaren %43a osatzen duela ikusi daiteke, Frantzian %25a ordezkaten duen bitartean. Etxaldeak, txikiak edo ertainak dira eta euskal nekazaritza klimaren eta luraren mugei kontrajarria dago. Alabaina, garrantzitsuena, nekazaritzak ezagutzen dituen eraldaketak dira. “Departamentuak 1959an 6.592 traktore bazituen, 1962an 10.900 ditu. Ongarrien kontsumoa 1960an 23.485 tonakoa bazen, 1961ean 31.736koa da. 1962an Crédit Agricole-ek 1955ean baino lau aldiz depositu gehiago dauzka”¹¹. Eta modernizazio hori laborari txikien bizkar egin da, beraien kopurua zeharo murriztuz. Horrek azaltzen du zergatik, 1960an Britainian eta 1961an ipar Euskal Herrian, familia etxaldeak babesteko manifestaldi eta beste mobilizazioak izan diren. Eragina are eta garrantzitsuagoa izan da Enbatako kide asko nekazari mundutik datozela jakitean.

Bigarren sektorearen egoera ez da hobea. Izan ere, %24,7a osatzen du ipar Euskal Herrian, Frantzian %37a osatzen duelarik. Hitz batean esanda, iparraldea azpi-industrializatua dago. Viers-ek dion erara, “Frantziako Pirinioak, zalantzarik gabe, gutxien industrializatuenak dira. Ezerk ez ditu lantegi kaleak gogorarazten”¹². Horrez gain, toki batzuetan kontzentraturik daude: industria txikia Maule eta Hazparne inguruan, Donibane Lohitzuneko arrantza portuan eta Baionako merkatal portuan kokatzen da. Enpresa handienak Angelun eta Bokalen daude, 2.500 langile bilduz¹³. Azpi-industrializazioaren ondorioetariko bat, iparraldeko jendetzaren emigrazioa da. Nekazaritza eta turismoa hobetsiz, sektore berriak ez dira garatuak, lanpostu berrien agerpena egotziz. Batzuk “odol galtze handi” batez mintzo dira egoera deskribatzeko orduan. 1851tik 1940era, ipar Euskal

9. GOYHENETCHE, E. *Le Pays Basque*. orr.561.

10. ENBATA, 1. zenb., orr.11-12.

11. ENBATA, 2. zenb., orr.41-42.

12. VIERS, G. *Les Pyrénées*. Paris: PUF, 1966, orr.112-113.

13. ENBATA, 2. zenb., orr.51.

Herriak 125.000 biztanle galdu ditu emigrazioarengatik eta, 1954tik at, galera demografikoa baretu eta batzuetan aldatu bada, prozesuaren ezaugarri nabarmenena jendea galtzearena izan da.

Hirugarren sektorea, turismoaren inguruan antolatua dago. Oro har, sektore honek %32,3a osatzen du, Frantzia %38a osatzen duelarik. Turismoa entzute-suena bada ere, funtsean balnearioarengatik da soilik, Biarritze eta Donibane Lohitzune hirien inguruan. Halaber, bigarren bizilekuak ugaltzen dira, bai kostaldeko herrietan, Urruñan edo Getarin esaterako, bai barnealderagokoetan, hots, Azkainen ala Kanbon. Egoera horrek bi eragin ditu. Batetik, hirugarren sektoreak turismoarekiko menpekotasuna du. Ondorioz, balneario sasoia txarra bada, iparraldeko ekonomiaren zati oso bat hondatzen da. Bestetik, ondorio ekologiko zein kulturalak ditu. Hain zuzen ere, eraikuntza eta etxegintza egitasmoek bazterrak eta oreka ekologikoa kolokan jarri ditu. Halaber, turismoak euskararen erabilera gutxitzen du baita euskal kultura folklorizatzen ere, erakustoki bihurtuz.

Enbatak eta oro har abertzaleek, egoera ekonomiko hori Estatu frantsesetik datorren zapalkuntzaren ondorio gisa ikusten dute. Izan ere, Frantziak ohitura zentralista du¹⁴ zeren, Konstituzioak dioenez, “departamentu eta lurraldeetan, gobernuaren ordezkariak interes nazional, kontrol administratibo eta legeen errespetuaren erantzukizuna du”¹⁵. Beraz, jarduera ekonomikoa Paris inguruan dago. 1962an, eraikuntza aeronautikoaren %52a, auto industriaren %62a, eraikuntza elektrikoaren %56a, zehaztasun industriaren %50a, eta abar Parisen daude. Eta deszentralizazioa hiri gutxi batzuen mesederako egin da, VI. Plan-ak zortzi hirigune hobetsi baititu: Lyon-Saint Etienne, Marseille-Aix-Fos, Lille-Roubaix-Tourcoing, Nancy-Metz, Bordeaux, Toulouse, Nantes-Saint Nazaire eta Strasbourg. Azpimarratzekoa da ipar Euskal Herria, Korsika eta Britainia zokoratuak izan direla. Arrazoi guzti horiek, Enbataren sorrera eragingo dute.

2.2. Enbata erakundea

2.2.1. Definizioa eta helburuak

1960ko udan, Enbata aldizkaria agertzen da. “Gazte batzuek zazpi euskal probintzien batasuna eta autonomia aldezteko gogoia dute, Europa federatu batean eta, lehen une batean, batez ere euskal nazio ideia gorpuzteko premia ikusten dute”¹⁶. Aldizkariak axola eta zoramena sortu du, erakunde politikoa sustatuz. Eta, 1963ko apirilaren 15ean, Enbata erakundeak bere lehen Biltzar Nagusia egiten du Aberri Egunaren kari. 500 pertsona inguru biltzen da: hautesiak (Etcheverry-Ainchart kontseilari orokorra, Errecart senataria eta alkateak), gutxiengo nazionalen ordezkariak baita ETAko zuzendariak ere, Madariaga eta Txillardeggi besteak beste.

14. LAFONT, R. *Révolution régionaliste*. Paris: Gallimard, 1967, p.22.

15. Frantziar Errepublikako Konstituzioa. XI tituloa, 72. artikulua.

16. MOGUI, J-M. *La révolte des basques*. Paris: Martineau, 1970, orr. 53.

Biltzar horretan, "Itsasuko Agiria" onartzen da, non Enbataren eta oro har mugimendu abertzale modernoaren oinarri teoriko zein ideologikoak osatzen diren. Honakoa dio:

Gu Euskaldunak

Zer giren:

- Lurraren, arrazaren, hizkuntzaren, ohituren aldetik, herri bat eta bakar bat gara
- Iragango eta egungo nahiaz, nazio bat gara
- Naturaz eta historiaz, demokrazia bat gara

Herri, nazio, demokrazia gisa

Zer diogun:

- Batasuna obratzeko eskubidea aldarrikatzen dugu
- Gure buruaren jabetasun osoa nahi dugu

Mende honetan, Herri bakoitzari bere burua gobernatzeko eskubidea zor baitzaio,

Jakin arazten dugu:

- Gure nazioa guk gobernatu nahi dugula
- Beste herriei gure Euskal Herria naziotzat onar-arazteko oldartuko garela
- Horrela, Euskal Herri bat eginen da eta gure aberriari bizia zein iraunkortasuna emango diogu.

Enbataren helburuei dagokionez, lehen une batean, iparralderako Departamentua, euskal hizkuntza zein kulturaren estatusa, eta ipar Euskal Herriaren industrializazioa lortu gura dute. Eta bigarren fasean, zazpi probintzia bateratuek euro-eskualde bat osatuko lukete eta beste herriei federatuak izango lirateke Europako Estatu-Batuetan. Hasieratik, Enbata-k "federalismo nazional" baten alde egin du, herrietan oinarritua dagoen muga gabeko Europaren eraikuntzaren alde. Enbata aldizkarian irakurri daitekeen moduan, "abertzaleak eta europar federalistak gara, ziur baikaude federalismoa Europarako beharrezkoa dela eta, une berean, Euskal Herriarentzako nahikoa dela"¹⁷.

Sentikortasun soziala badauka, ez da zehaztua. Erakundearen lehen txostenean irakurri daiteken gisara, "gure mugimenduak (...) pentsatzen du eginbehar premiazkoena Euskal Herriaren iraunkortasuna bermatzea dela, bere batasun eta askatasunaren bidez. Helburu horrek ez du justizia sozial handiago batentzako gudia baztertzeko"¹⁸. Hala ere, Enbatako sortzaileentzat, galdera soziala epe

17. ENBATA, "Fédéralisme basque et européen". orr.21.

18. ENBATA, 1. zenb., orr.2.

jakin batentzako parentesi artean ezarri behar da, estatus politikoa lortu arte. Beraz, abertzaletasun modernoaren oinarriak sortzeaz gain, Enbatak aldarrikapen zehatz bezain koherenteak osatu ditu eta iparraldeko mugimendu abertzalea egituratu du.

2.2.2. Enbataren ekintza

Enbatak praktikan jarritako ekintzari so egin ezker, hiru ekintza modu erabili dituela ohartzen gara: 1) mobilizazioen antolaketa eta bertan parte-hartzea, 2) informazio kanpainak osatzea, txostenak zein hitzaldi-etzabaidak eginez, eta 3) hauteskunde bakoitzean zerrenda bat aurkeztea. Ekintzaren norabideari dagokionez, hiru aukeratu ditu funtsean: hegoaldeko etorritako errefuxiatuei laguntza eskaintzea, egoera ekonomiko zein sozialaren salaketa egitea, eta erakundea azkartzea. Azpimarratzekoa da lotura bat dagoela ekintza modu eta ekintza norabidearen artean.

Lehenik, Enbatako kideek errefuxiatuak sustengatu dituzte eta beraiekin maiz harremanetan sartu dira. Sostengu hori modu anitzez adierazi da, hala nola, manifestaldiak eta elkarretaratzeko antolatuz. Hor dira frogak gisa 1969tik aurrera suertatu diren mobilizazioak eta gose grebak. Era berean, lan zein etxebizitzak aurkitzera lagundu diete.

Ondoren, informazio lan nabarmen bat egin du. Horrekin, ipar Euskal Herriko biztanleriari kontzientzia hartu arazi dio, batik batik, hegoaldean praktikatzen zen tortura zer nolakoa zen agerian utziz. Davant-ek idatzi duen moduan, Enbataren ekintzak, "demistifikazio lan bat eta euskal biztanleriaren ez-alienazio bat baimendu du"¹⁹. Baina, gai hobetsiena ekonomikoa izan da, txosten asko gai horri lotuak izan baitira. Gaiaren aukera bi arrazoietan oinarritzen da, hau da, Enbatako kideen heziketan eta testuinguru ekonomiko larrian, batez ere barnealdean, nekazaritzaren zailtasunak direla eta.

Azkenik, Enbata bi hauteskundeetara aurkeztu da: 1967ko legebiltzarretara eta 1968ko legebiltzar aurreratuetera. Helburua bikoitza izan da: batetik, hautesleei alternatiba euskaldun bat eskaintzea, horren bidez ideia abertzaleak, administrazioak eta oro har Estatu frantsesak sarriago kontutan hartu ditzan, eta, bestetik, erakunde gisa indartzea, sinesgarritasun handiagoa lortzeaz gain, zilegitasun anitzagoa edukitzeko. Emaitzen arabera, 1967ko legebiltzar hauteskundeetan, Enbatak, 5.000 bozka inguru lortzen ditu, hau da %5,03a, eta barnealde nahiz kostaldearen artean ez dago alde nabarmenik. 1968ko hauteskundeetan, aldiz, %1,71 lortzen du soilik. Azken hauek eztabaida eta zatiketa testuinguru batean gertatu dira, 1968ko maiatzean suertatutako mobilizazioen ostean. Batzuek diote hauteskundeetara aurkezteak ez duela interes zein egokitasunik. Eta hauteskunde porrot honek Enbataren beherakada eragingo du.

19. DAVANT, J-L. *Histoire du peuple basque*. Paris: Elkar, 1993, orr.159-160.

2.2.3. Enbataren erorkera

Pixkanaka, Enbata bere ordezkaritza zein indarra galtzen joan da, batik bat, 1968ko hauteskundeetan lortutako emaitza kaxkarren ostean. Izan ere, “errepikatzen den elektoralismoaren hutsegite erlatiboak, gazteak diren bere partaide beroenak adoregabetu ditu. Batzuek, anarteko behintzat, kulturalismora mugatu nahi dira. Besteak, 1968ko maiatzak liluratu dituztenaren bila dabilta”. Hori dela eta, 1968ko uztailean, Enbataren Biltzar Nagusiak erakundea geldiaraztea erabakitzen du, ezereztu gabe. Hala ere, Enbatako hainbat kidek, 1970. hamarkadan zehar izandako mobilizazio zein gose grebetan esku-hartuko dute. Hauteskunde porrotei, Enbatak aldeztutako federalismoaren atzerapena gehitu behar zaio, bere aldizkariaren hirugarren zenbakian aurreratutako ikuspegitik ez baita aldendu: “lehenik Europa eta beranduago mundu batu bat egingo da non mugak desagertuko diren eta herriak federalismo anaitasun batean biziko liratekeen”²⁰. Azkenik, ETak garai horretan ezagutu duen barne aldaketa funtsezkoa izan da, are eta gehiago gazteriarengan eragin handia zeukala jakitean. Horrek, hainbat zatiketa eta gatazka sortu ditu zeren, ETatik hurbil diren gazteek, Enbatari bere legalismoa aurpegiatzen diote.

Alabaina, 1968an, Enbatak alderdi politikoa izateari uzten badio, ez da erakunde gisa desagertzen. “1970ko udazkenean (...), 2 eta 3 urtez itxaron eta kulturalistei zein ezkertiarrei besoak iriki ostean, Enbatak oinarri berrien inguruan berrantolatzea erabakitzen du. Politika alde batera utziz, ekonomiari eta kulturari iraganean baino gehiago sagaratu nahi du. Elektoralismoa alde batera uzten du”²¹ eta indar handiarekin lanaren aldeko borrokan murgiltzen da. Azkenean, 1974ko hasieran, testuinguru gogor batean, non ETak Carrero Blanco hil duen, Bordalen prentsa-aurreko bat egin duen eta gose greba berriak suertatzen diren, Enbataren geroa erabakiko da. Izan ere, Baionako katedraleko gose greban ez parte-hartu arren, frantses gobernuak erantzule gisa jotzen du, 1974ko urtarrilaren 30ean Enbata debekatuz.

Hala eta guztiz ere, Enbatari hiru lorpen nagusi aitortu behar zaizkio. Lehenik, Abeberry-k azpimarratzen duen moduan, Enbataren izaera eta ekintzak berak, “modu itzulezin et ordurarte ezezagun batean (...), Euskal Herriaren askatasun nazionala planteatu du”²². Hain zuzen ere, Enbata baino lehen, “1936ko errefuxiatuak bazeuden, beraiei lotzen ziren gizabanakoak baziren eta Aintzina bezalako mugimendu erregionalistak bazeuden, ez zegoen iparraldeko abertzaletasunik”²³. Enbatak haustura eragin du, erregionalismotik abertzaletasunera igaroz. Bigarrenik, Enbatak hegoaldeko abertzaleei itxaropena eman die eta gudua batu du. Batetik, bere egitasmo orokorrean argiki planteatu du Euskal Herriak bere buruaren geroari buruz erabakitzeke duen eskubidea, autodeterminazio eskubidea alegia, baita hegoaldearekiko batasuna ere. Bestetik, ekintzetan Zazpiak Bat-a gau-

20. ENBATA, 3. zenb., “Mouvement Enbata”. orr.54.

21. DAVANT, J-L. *Histoire du peuple basque*. Bayonne: Elkar, 1993, orr. 161.

22. DAVANT, J-L. *Histoire du peuple basque*. Bayonne: Elkar, 1993, orr. 169.

23. EKAITZA, 1987-ko azaroaren 19-a.

zatu du, ETAko kideekin lan eginez eta errefuxiatuei laguntza emanez. Hirugarrenik, Enbata iparraldeko mugimendu abertzalea egituratu duen lehen erakundea izan da eta aldarrikapen euskaldun koherentea egiten lehena. Zentzu horretan, Enbata erakunde politiko gisa desagertzeak aldaketa sakonak eragin ditu.

3. ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA ETA GAZTE MUGIMENDU ALTERNATIBOAREN OSAKETA (1968-1974)

1968tik aurrera, ipar Euskal Herriko mugimenduak berrikuntza jasaten du. Bere norabideak bi dira: batetik, bere ekintza errefuxiatuen sostenguaren eta oro har errepresioaren kontrako borrokaren inguruan antolatuko du eta, bestetik, gazteak erakunde alternatiboz hornituko dira, 1968ko maiatzean suertatutako gertakizunen ondoren.

3.1. Errepresioaren aurkako gudua

3.1.1. Errepresioa eta errefuxiatuak

1960. hamarkada hasieratik, frantses gobernuak bere errepresioa areagotzen du. 1962ko urrian, lau errefuxiatu kanporatzen ditu, gobernu frankistak eskaturik, nahiz eta lege frantsesa ez zuten bortxatu. 1964ko maiatzean, Krutwig euskaltzaina kanporatua da; 1965ean, Madariaga, Txillardeggi, Irigaray eta Benito del Valle-ren txanda delarik. Madariaga eta Iriagaray isun eta sei hilabeteko kartzela zigorrera kondenatuak dira, poliziari ihes egiteagatik. 1967ko irailean, Etxabe, Uribe eta Elozegi urrunduak dira eta, 1968az geroztik, errepresio frankista gogortzen doa. Horrez gain, Guardia Zibilak Etxebarrieta, ETAko zuzendaria, hiltzen du auto kontrol batean. Urte berean, ETAREN ekintza armatuak orokortzen dira eta, 1969ean, espetxeratuak diren ETAko kideak, Izko eta beste sei partaide, hiltzeko zigortzeko mehatxupean daude. Ondorioz, asko dira ipar Euskal Herrian errefuxiatzen diren abertzaleak.

1969an, abertzaleek, Donibane Lohitzuneko Aste Handia boikotatzea erabakitzen dute: udaletxeak erregimen frankistako goi mailako arduradunak gonbidatzen baititu. Negoziatzen ahalegindu arren, udaletxeak bere jarrerari eusten dio eta, harrera egin ahal izateko, izugarritzko polizia zabaltzea erabakitzen du: 800 CRS, 30 poliziako aitzindari eta 70 espainiar polizia baitaude²⁴. Horrez gain, errefuxiatu batzuk Île-de-Ré-n hamabost egunez asignatuak dira. Eta 1969ko abenduaren 11n, Basauriko espetxetik ihes egin eta iparraldean errefuxiatu diren zortzi preso politiko, Dijon zein Angers-en baldintza txarretan asignatuak dira.

Bestalde, "errefuxiatuek kezka administratiboak jasaten dituzte: aipatutako 18 urruntze eta 10 erresidentzia asignazioei (...), Pirinio-Atlantikoetako Departamentua uzteko 50 bat ahozko eta 5 idatzizko gonbidapen gehitu daitezke, langa-

24. DAVANT, J-L. *Histoire du peuple basque*. Bayonne: Elkar, 1993, orr.165.

beziaren aitzakipean, jakinik interesatuek eskulan gogor zein gutxi ordainduak egiten dituztela”. Halaber, “administrazioak errefuxiatu politiko karta errefusatzan die. Soilik hamabost egunerako eta, ostean, hiru hilabeterako kitantza anartekoak ematen dizkie. Enpresariengan presio egiten du ez ditzaten kontratatu”²⁵.

1970ean, Frantzia osoan, 300 euskal errefuxiatu daude, horietariko 150 ipar Euskal Herrian bizi direlarik eta beste hainbeste Belgikan, Alemanian zein Suitzan. Kopuru garai horrek eta jasaten duten errepresioak mobilizazioak piztuko ditu.

3.1.2. Errepresioaren aurkako mobilizazioak

Hiru motatakoak izan dira funtsean: gose grebak, manifestaldiak eta informazio kanpainak. Gose grebekin hasiz, esan daiteke sei izan direla 1970tik 1974era doan epean: 1970ko martxokoa, 1971ko maiatzekoa, 1972ko urri eta azarokoa, 1974ko urtarrila eta otsailekoa. Ondoren beste bi gertatuko dira, hots, 1976ko gabonetakoa eta 1984ko urtarrilekoa. Gose grebek eragin handia eduki dute ipar Euskal Herri osoan eta, abertzaleetatik at, begikotasuna eta elkartasuna agerraraziko dituzte.

Denak garatu ezinean, 1972ko urrian izandako gose greba zehaztu daiteke. 1972ko urriaren 8an, Aldizkari Ofizialean ageri da ETA erakundea debekatua dagoela. Gazte abertzaleek esku-hartze handia edukiko dute eta, pixkanaka, informazio lanaren ondorioz, gose greba geroz eta herrikoia izatea lortuko dute. Hain da egia non hiri eta herri ezberdinetara hedatuko den, Baionaz gain, Donapaleu, Maule ala Zokoa aipa daitezkeelarik. 1974ko urtarrila eta otsaileko gose greben kasuan, ETAk Carrero Blanco hiltzeak sortutako errepresioari aurre egiteko izan da. Hortik aurrera, espainiar gobernua frantses gobernuari presio nabarmena egin dio, egun batzuk beranduago, frantses gobernuak errefuxiatu politiko batzuk botatzea erabakiz baita ere gose greba piztuz. Garrantzitsuena izan den gose greba horrek ukandako oihartzuna ikaragarria izan da, eta Bretoien nahiz Flandriarren elkartasuna lortu du.

Sostengu manifestaldi eta kontzentrazioei dagokionez, anitzak izan dira, bereziki Burgos-eko epaiketaren garaian. Ostean, 1971ko Aberri Eguna Donibane Lohitzunen ospatu da eta, prefetak debekatu arren, ehunka gazte bildu dira. Izandako liskar zein enfrontamenduen ondorioz, Txillardegí eta Monzon Euskal Herriak urruntzen dituzte, une berean hainbat militante abertzale epaituak direlarik, isun zein bete gabeko kartzela zigorrak jasanez. Halaber, 1972ko otsailaren 22an, abertzale erakundeek bat-bateko manifestaldi bat egin dute Baionako herriko etxearen aurrean, kanporatze mehatxu berriei aurre egiteko. Biharamunean, euskal ikasleak, Pauen, arrazoi berengatik biltzen dira. Bestalde, 1972ko gose greben parean, bi manifestaldi izan dira Baionan, 1.200 eta 2.000 pertsona bilduz.

25. DAVANT, J-L. *Histoire du peuple basque*. Bayonne: Elkar, 1993, orr.168.

Azkenik, informazio kanpainak anitzak izan dira. Jada 1969an, preso politiko batzuen heriotza zigor mehatxuak direla eta, Enbata zein PSUK ekimena hartzen dute. Urte horretako uztailaren 29an, *Front de lutte du Pays Basque contre la répression franquiste* taldea Baionan sortzen da, Enbata, ETA, PSU, PS, MFE (Mouvement Fédéraliste Européen) eta Humanité Rouge erakundeak bilduz. Eta "frente horrek, informazio kanpaina indartsu bat bultzatu du hego Euskal Herriko torturari buruz bereziki eta errepresio frankistari buruz oro har: akordioak, kartelak, artikulua, eta abar. Lehenago, Enbatak iparraldeko iritzi publikoa sentikortu zuen, gai horri buruz zenbaki berezi bat argitaratuz²⁶. Ondoren, beste kanpaina anitz eginak izan dira. Mobilizazio horien eragileak, sortu berri den gazte mugimendu alternatiboan bilatu behar da.

3.2. Gazte mugimendu alternatiboaren osaketa

1968ko maiatzeko gertakizunek, eragina eduki dute gazte mugimendu alternatiboaren sorreran, erakundeak ere borondate berriaren adierazpenak izango baitira. Asko dira: Amaia, Mende Berri, Aski Beltza baita Ezker Berri, Euskal Hegoa, Jazar ala Herriaren Alde. Ez dira une berean denak egon eta batzuen bizia laburra izan da oso. Beraien ezaugarriak bost dira: 1) ohizko erakunde eta ibilbideen gaitzespena, 2) hausturaren hautaketa, 3) legalismoaren arbuioa, 4) Estatuarekiko gatazka jarrera, eta 5) aldarrikapen sozial zein nazionalen integrazioa.

3.2.1. Amaia erakundeak

Amaia, Enbataren alternatiba garrantzitsuenetarikoa izan da gazteen mailan. Hasieratik, elkarte estatusa hartzea erabaki du, poliziarekin ez arazorik izateko. Enbata kritikatzeko, erradikalitasun maila baxuagatik ez ezik, jauntxoan alderdia bilakatu zela iruditzen zitzaiolako. Bere kideak ikasleak dira eta Paris, Pau, Bordale eta Tolosako unibertsitateetako taldeetan militatzen dute. Hausturan dauden burgesak dira. Ezagunen artean, honakoak izendatu daitezke: Eñaut Haritschelhar, Xan Coscarat, Peio, Gabi eta Beñat Oyharçabal, Lucien eta Dominique Etxezaharreta, Xarles Videgain, Jon eta Margarita Etcheverry-Ainchart, Jacob-ek dioenez, buruzagi karismatikoa Peio Oyharçabal delarik. Baionan 50 militante aktibo daude eta kideak 100 pertsonara iritsi daitezke.

Bere barne ibilbideak bi ezaugarri dauzka: hierarkia eta sekretua. Izan ere, zentralismoa eta militantei eskatzen zaien diziplina handiak dira, batzuetan kideen bizi osora heda daitezkeelarik. Taldea, gizabanakoaren gainetik izateaz gain, homogeneotasunerako ezartzen duen presioa itzela da. Horrez gain, buruzagjak, aszetismo iraultzaile baten alde daudenez, festa eta plazera urruntzen dituzte, sakrifizioa gorapatuz. Malherbes-k²⁷ Amaiaren barne diziplina monaste-

26. ENBATA, 18. zenb., "La torture en Pays Basque", 1969ko ekaina.

27. MALHERBES, J-P. *Le nationalisme basque en France (1933-1976)*. Toulouse: Tolosa I Unibertsitateko Doktorego Tesia, 1977.

rioen parekoa dela dio. Erakundearen alderdi sekretuak, isilpeko erakunde bihurtzen dute, poliziaren iragazte arriskuak egozteko asmoz.

Amaia-ren helburua, ikasleak hezte da, elitearen eskola bezala definituz, non geroko euskal nazioaren buruzagiak sortuko diren. Ikastaldiak urtean zehar ala oporretan egin daitezke. Zentzu horretan, Amaia-aren garrantzia ez da hainbeste bere kideen kopuruari lotu behar, hiru arrazoiengatik. Lehenik, talde hori “iragazki alderdia” baita, hau da, kideak ez dira luzaroan gelditzen. Bigarrenik, erakundeak gazte asko hezi ditu, ostean talde ezberdinetan aurkituko direnak. Hirugarrenik, euskal gazteria erradikalizaziora eraman duelako.

Alabaina, 1971n zatiketak agertzen dira, ondoren erakundearen desagertzea eragingo dutenak. Batetik, barne ibilmolde hierarkiko zein diziplinatuak, kideen arteko liskarrak sortu ditu, batzuek gaizki bizi baitzuten ezer esan gabe obeditzea eta “logika totalitarioaren arriskua” azpimarratzen zuten. Halaber, plazerrari tokirik ez uzteak, ondoeza sortu du. Bestetik, 1970ean ETA bitan zatitzen da: ETA V eta ETA VI. Lehenak borroka nazionalari lehentasuna ematen dio eta bigarrenak, aldiz, gudu sozialari, zatiketa Amaia-ren barruan errepikatu delarik. Eta Amaia-ko kide zenbaitzuk Mende Berri erakundea sortzen dute.

3.2.2. Mende Berri eta beste erakundeak

Bende Berri erakunde kulturala da, bere helburua euskal kultura zein hizkuntza babestea baita. Hala ere, egokiagoa dirudi esatea politika eta kulturaren artean kokatzen dela. Gabi Oyharçabalek sortu duen taldeari, Eñaut Haritchelhar, Xan Coscarat eta beste hainbat gehitu zaizkio. Kidetzan hiru zirkulu bereizi daitezke: lehen zirkuluak 30 pertsona biltzen ditu, bigarrenak 70 eta hirugarrenak 280.

Bere ideologiaren kasuan, ekologismoz nahiz kulturalismoz bustirik dago, euskal kultura zein hizkuntza babesteko premia ikusteaz gain, turismoaren araberako aiherkundea ageri duela, tokiko natura zein ekonomiaren arteko oreka eskatuz eta, pixkanaka, sozialismo autogestionario batengana norabidetuz. Egia esan, Mende Berri ez dauka egitarau zehatzik, baizik eta frantses kulturaren asimilazioaren araberako erreakzioa izan da.

1972ko gose grebetan esku-hartu ostean, Mende Berriren barruan²⁸ zatiketa bat agertuko da. Batzuek diote, barne ibilmoldean diziplina eta zorroztasuna behar direla. Horrez gain, apolitikotasunaren alde daude, nahiago baitute galdera kulturaletara sagaratzea, ahaztu gabe ipar Euskal Herria eta bere arazo propioak hobesten dituztela. Besteek, Mende Berri politikoago eta berezkoago baten desira adierazten dute, hego Euskal Herriko guduan sartu nahi baitute, gose grebetan egiteko aukera ukan duten era berean.

28. JAMES, E. *Hills of conflict. Basque nationalism in France*. Reno: Nevada University Press, 1994, orr.167.

Gudu politikoa jarraitu nahi dutenek, 1976an Ezker Berri erakundea sortzen dute. Hogei kide inguru dauzka eta, horietariko batek esan duen moduan, sortu eta denbora gutxira hil da. Bere partaideak ez dira HAS-en sartu, erretorika hutsa praktikatzen dutela baidiote. Mende Berritik, anti-marxistak izateagatik joan direnek, Euskal Hegoa osatu dute. Mende Berri baino politizatuagoa da eta bere ekintza errefuxiatu politikoen inguruan antolatzen du. Bere barne ibilbidea diziplina eta egituraketa zurrunaren aurkakoa izanik, bat-batekotasun handiagoaren aldekoa da.

1975an, Euskal Hegoa ezereztzen da. Pixka bat lehenago utzi dutenek, 1974an, Jazar erakundea osatu dute, jakinik barne egitura xumea duela eta, indarrarekin, “turismoaren monopolioaren aurka eta langileen babesaren alde borrokatzen dela”²⁹. Horrez gain, “bere azterketak serioak dira, bere ekintzak ongi antolatuak eta orokorki iritzi publikoak ongi ulertzen ditu. Sendoa zein eraginkorra da eta Baionako eta Donibane Lohitzuneko langileengan eragina edukitzen hasten da”. Azkenik, Herriaren Aldek toki garrantzitsua bete du errefuxiatu eta espetxeratutako militanteen aldeko kanpainetan, nahiz eta denborarekin, iparraldearen arazo propioetara itzuli baita Jazar-ekin lanean aritu ere. Gazte taldeak, sozialismorantz doazen bezala, zaharrenak ere joango dira.

4. SOZIALISMORANTZ ETA ERRADIKALIZAZIORANTZ (1974-1981)

1970. hamarkadan, ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalea bi korrontez osaturik dago: legalitatean militatzen duten alderdiak, hauteskondeetara aurkeztu direnak, bortizkeria gaitzesten eta logika erreformista hobesten dutenak dauden bitartean, isilpeko taldeak, borroka armatua erabiltzen dutenak eta hausturaren alde daudenak aurki daitezke.

4.1. Sozialismorantz

4.1.1. Herriko Alderdi Sozialistaren sorrera

1974ko martxoaren 30ean, Baionan, Herriko Alderdi Sozialista (HAS) osatzen da. Bere kideak, Enbataren bigarren belaunaldiko buruzagiak dira baita inoiz kide izan ez diren gazte batzuk ere. Izan ere, 20 eta 45 urte bitartean dituzte, lana daukate eta asko irakasle ala funtzionarioak dira. HASeko zuzendaritza batzordea osatzen duten pertsonak hauexek dira: Jean-Louis Davant, Battitta Larzabal, Manex Goyhenetche, Jakes Eyherampunho, Jean Etchebarne, Charles Etxezaharreta, Raoul Reinales, Etienne Arotçarena eta Osane. HASen sorreran hogeitazirekin, 1976an amaieran 69 dira, Hazparne, Baiona, Donibane Lohitzune, Xiberoa, Senpere, Hendaia eta Paris-eko taldeetan lan eginez. Baina, HASen erdigunea kostaldean kokatzen da, Hazparne eta Xiberoko taldeak aktiboak izan arren.

29. DAVANT, J-L. *Histoire du peuple basque*. Paris: Elkar, 1993, orr.183.

Hala ere, HASen arazo handia Enbatarekiko harremana da. Jacob, Enbataren mamuaren exorzismoaz mintzo da, zeren, izan eta garatu ahal izateko, HAS Enbatarengandik aldendu behar zen. HASek, batetik, berekiko Enbatak zuen etsaigoa arbuaitzen zuen eta, bestetik, bera gutxien saiatzen zen. Horrez gain, erakunde sozialistak maiz errepikatzen du ideologia eta egitura ezberdinak dituztela, beraien hitzetan, Enbata eskuinean kokatzen den jauntxo alderdia baita. Horretarako, euskaldun guztiak bildu ditzakeen norabide soziala gutxien du. HASentzat, ordea, galdera nazionala eta galdera soziala erabat lotuak daude. Bere plataforman dio: “bere eskubide nazionaletan eta bere kategoria sozialetan ustiatua den Euskal Herria”³⁰ babesten dugu. Zehazkiago, bere helburuak dira:

Euskal Herri batu baten sorrera, gobernu demokratiko eta herrikoiarekin, non klase borrokariak boterea hartuko duen. Horrek, kapitalismo eta inperialismo egitura guztien suntsipena suposatzen du baita ere herriaren ekoizpen moduen, kreditu eta aldaketen berreskurapena.³¹

Aldezten duten sozialismoak lau osagai ditu. Lehenik, benetako sozialismoaren eraikuntza inplikatzeko: ekoizpen modu eta kredituaren berreskurapena, ekonomia sozialistan oinarritua dagoen demokrazia eta langile klaseak boterea duen demokraziaren ezarpena. Bigarrenik, Euskal Herriaren eskubide nazionalak berrezartzea, bere barruan dagoelarik autodeterminazioaren eskubidearen baieztapena eta euskal kultura zein hizkuntzaren babesa. Hirugarrenik, bortizkeri iraultzailearen sostengua, estrategia iraultzailean kokatzen delarik eta herriaren babesa daukalarik. Laugarrenik, nazioarteko elkartasuna, inperialismoa jasaten duten indar aurrerakoen arteko elkar-laguntza, ezkertiar erakunde frantses zein espainiarrena besteak beste. Pixkanaka, HAS alderdi nazionala bilakatuko da.

4.1.2. Batasun nazionaletik banaketara

Bi arrazoiek baimenduko dute erakunde nazional sozialistaren sorrera: alde batetik, HASek ez du ezkertiar alderdi frantsesekin itunik izenpetu eta iparraldeko mugimendu abertzalea erradikalizatzen doa Iparretarrak eta beste talde armatuen agerpenarekin, eta, beste aldetik, 1975ak, Franco-ren heriotzarekin batera, irekidura giro bat sortu du. Eztatidak zein bilkurak biderkatzen doaz eta alderdi batzuek sozialismo iraultzaile posizioak aldeztu nahi dituzte, borroka armatua erabili gabe. Testuinguru horretan, ipar eta hego Euskal Herriko alderdi abertzale sozialistak harremanetan jarri dira erakunde nazional bat sortu zitekeen jakiteko. Eta 1975ko azaroan, iparraldeko HAS eta hegoaldeko EAS³² batzen dira, Euskal Herriko Alderdi Sozialista (EHAS) osatzeko.

Osatutako adierazpenak dioenez,

30. EUSKALDUNAK, 1974-ko apirila.

31. EUSKALDUNAK, 1975-ko maiatza.

32. Alderdiko kide asko ETA-ko fronte kulturaletik datoz.

EHAS, Euskal Herriaren borrokaren erdian sortzen da, bere askatasunerako beharrezko tresna bezala. Estatu sozialista euskalduna lortzeko, abertzaleen alderdi antolatzaile gisa jartzen da. Modu horretan, Euskal Herriaren askatasun nazional zein soziala bereiztezinak bezala onartzen ditu. Bestalde, nazio osoan jarduten duen lehen alderdi politikoa da, ipar eta hego Euskal Herriaren arteko derrigorrezko zatiketa hautsiz. Beraz, Euskal Herriko zapalketa eta zatiketa nazionala, ustiatze sozioekonomikoa eta genozidio kulturalaren erantzuleen aurka (...) borrokatzen gara. Halaber, Frantzia zein Espainiako alderdi ezkertiarrek salatzen ditugu zeren, Euskal Herriaren errealitatearen aurrean daukaten ez ezagutzarengatik (...), oligarkien zanpaketa nazionala berregiten dute. Era berean, eskuineko abertzaletasuna arbuiazen dugu zeren Euskal Herriaren askatasun formala nahi du, euskal langile herriaren benetako askatasuna ukatuz.³³

Alderdiaren egitaraua sei puntutan laburtu daiteke:

- Euskal Herria batzea.
- Estatu sozialista independente bat osatzea.
- Kultura nazionalaren adierazpena: euskalduntzea.
- Gutxiengo nazionalen askatasuna.
- Langile klase eta munduko herri zanpatuekiko elkartasuna, batik bat Estatu frantses zein espainiarrena.
- Askatasunerako beharrezkoa den Koordinadora Abertzale Sozialista (KAS) bat sortzea.

Iparaldean, KAS bat eraikitzen saiatu da. Pindar-en ekimenari jarraipena emanez, EHAS, Herriaren Alde, Jazar, Mende Berri eta Ezker Berri elkarretaratu dira bildu zitzakeen egitura bat sortzeko. Koordinadoraren ezaugarriak Larzabalek zehaztu ditu: erakunde bakoitzak izaten jarraitzen du; oinarritik hasitako batasun bat da; ezker abertzaleko erakunde guziei irekia baita barnealdeko laborari taldeei ere. Hala ere, laster ihardukitzeak agertuko dira. Lehenik, Jazar-ek axolagabekeri jarrera dauka, une berean, alderdi politikoetatik kanpo kanpaina bat antolatu nahi baitu langabeziaren inguruan. Bigarrenik, Davant-en aburuz, ez litzateke hauteskundeetara aurkeztu behar, militante zein jarraitzaileek soilik EHASendako bozkatuko bailukete. Hirugarrenik, Herriaren Aldek dio hauteskunde bideak ez duela Euskal Herria askatuko eta bakarrik mobilizazioek aurrerapenak baimenduko dituztela. Bosgarrenik, Ezker Berri-k hautagaiak izendatzeko modua arbuia dute. Beraz, KASaren ideia bertan behera gelditu da.

Horrez gain, EHASen barne egoera ez da hoberenetarikoa. Hain zuzen ere, hasiera batean EHASEk Ehaskide aldizkaria hiru hizkuntzetan argitaratzea erabaki badu, laster agertzen da euskalkien aldeak baita ere frantsesari zein espainolari eman zaien tokiak handiegiak direla horrelako formularekin jarraitzeko. Hori baino latzagoa da ipar zein hego Euskal Herrian eduki duen zabaltze maila. Hegoaldeko EHAS masa alderdia bilakatzeko zorian dagoen une berean, iparraldeko EHAS alderdi txikia da eta, Euskaldunak aldizkaria, hegoaldeko diru-laguntzei

33. EHAS-en adierazpena.

esker bizi da. Hala eta guztiz ere, kaleko salmentak berantz doaz eta harpidetzak desagertzeaz daude. Egoera honen ondorioz, 1977ean, hegoaldeko EHAS bereizten da HASI-ren izena hartzeko, ostean Herri Batasunan sartuz.

Halaber, iparraldeko zuzendari batzordean zatiketak agertzen dira Euskaldunaren egoera larriaren inguruan. Baina, gaitza sakonagoa da: militanteen arteko gatazkak, Enbatarekiko harreman obsesiboa, diru zailtasunak eta errotze xumea. Ez ezer konpontzeko, HASek praktikatzeko duen zentralismo demokratikoak hainbat liskar eragin ditu, zuzendaritza eta oinarritzko kideen arteko haustura eraginez. Aurre egiteko, zuzendaritza batzordeak autokritika burutu du gutxiengo batasun bat mantentzeko.

4.1.3. Hauteskundeak

1974ko lehendakari hauteskundeetan, alderdiak, François Mitterrand Alderdi Sozialistako hautagaiaren alde bozkatzeko aukera egiten du. Aukera estrategikoa da, alde batetik, gehiengo bozka sisteman, bozka asko eta ezberdinak behar baitira hautatua izateko, ondorioz ezkerrek irabazteko gutxiengo nazionalen elkartasunaren premia dauka, eta, beste aldetik, ordura arte boterean izana den eskubia euskaldunen aurkakoa da: eskubide nazional zein kulturalak ez errekonozituz, turismoan oinarritutako politika ekonomikoa martxan jarritz, eta abar. Beraz, ezkerri bere aukera eman behar zaiola uste dute, okerragoa ezin daitekeela izan pentsatuz. Azkenean, Giscard d'Estaing garaile atera bada ere, ezkerrek emaitza onak lortu ditu kostaldean eta barnealdeko herri batzuetan. HASentzat, emaitzek erakusten dute jauntxoaren monopolioan hausturak agertzen direla.

Hauteskunde horientzako, HASek jauntxo kontserbatzaileen aurkako kanpaina egin du. HASek dio, jauntxoek eta botere publiko frantsesek *Batallon Vasco Español* (BVE) talde paramilitarren ekintzak baimentzen dituztela, isiltasuna mantenduz. Izan ere, BVEek ekintzak burutu ditu iparraldean dauden euskal errefuxiatuen aurka. Horrez gain, ekonomia turistikoa hobetsi duten jauntxoaren izenen zerrenda argitaratu du. Azkenik, jauntxoak arbuizatzen ditu zeren Giscard d'Estaing-en politika erreformatzailea Euskal Herrian gauzatu nahi dute.

1976ko kantonamendu hauteskundeak euskal departamenduaren lorpenaren inguruan antolatu dira. Horretarako *Association pour un Département Basque* elkarteak sortu da aldarrikapen zehatz hori aurrera eramateko. Abertzaleek, industria eta merkatal ganbarako kideek eta Izarra bezalako enpresetako buruzagiek osatzen dute. Haritschelhar, elkartearen idazkari gisa, hauteskundeetara aurkeztu da. Emaitzen arabera hiru hautetsi ezkerrekoak dira, hamasei eskubikoak eta abertzalerik ez. HAS-EHAS hasieratik euskal departamenduari kontrajarri zaio, "Baionan prefektura bat sortzea, administrazio zentrala indartzea dela, prefeta bat gehiago, botere gehiago, zaindaritza hurbilagoa, polizia eraginkorragoa"³⁴ iruditzen baitaio. HAS-EHASek nahiago du Departamendu-Eskualde eus-

34. EUSKALDUNAK, 1974-ko azaroa.

kalduna, bere iritziz, eskubide nazionalen ezagutza prozesuan aurrerapauso bat bailitzateke.

1977ko udal hauteskundeetan, ezker frantsesa (PSU, PS eta PCF), EHAS, bere baitan sartzen ahalegindu da, bere zerrendetan toki batzuk eskainiz. EHA-Sek ez du euskal arazoa konpontzeko hauteskunde sisteman sinesten, baina komunikatzeko eta horrela abertzaletasuna dagoen zulotik ateratzeko une aproposa dela antzematen du. Itunaren emaitzak hainbat herritan agertu dira. Baionan, %38a lortzen duen bitartean, Larresoron %19a edo Urkuit-en %15a lortu ditu. Orokorrean emaitzak baikorrak direnez, euskal departamendua lortzeko presio egitera bultzatzen du.

1978ko legebiltzar hauteskundeetan parte-hartzea erabakitzeko eztabaida luzea izan da. Hala ere, 1977ko azaroan, Euskaldunak egunkarian, EHASEk legebiltzar hauteskundeetara aurkeztuko dela publikoki dio. Hirugarren barrutian, Larzabal aurkeztu da Lanathoua-rekin eta, laugarrenean, Goyhenetche hautagaia izan da Massigoge-ekin batera. Aldarrikapenak hauexek dira: lanpostuak sortzea, industrializazio politika gauzatzea, laborantza ekonomia berrindartzea eta biztanleriaren beharakada gelditzea, eraikuntza turistikoak amaitzea, kultura babestea eta euskarazko irakaskuntza garatzea. Horrez gain, “Baxe Nafarroa, Xiberoa eta Lapurdik osatuko luketen lurralde elkargo autonomo”³⁵ baten alde jardutea. Elkargoa, Biltzar autonomo batek gobernatuko luke eta bere kideak sufragio unibertsalean eta bozka proportzionalaren bidez hautatuak izango liriateke. Autonomi osoa edukiko luke kultura zein hezkuntza arloetan, euskarari ofizialtasuna emanez, baita ekonomian ere, enpresak nazionalizatzeko ahalmena edukiz. Emaizten arabera, Larzabalek %4,76a eta Goyhenetche %3,02a lortu dute. Barnealdean, emaitzak hobekak dira, laborantzaren eta basamortutzearen arazokak larriagoak baitira.

4.1.4. EHASen desagertzea

Pixkanaka, EHAS, gazte abertzaleentzako zaharkitua gelditu da. Alde batetik, sortu berriak diren Herri Taldeek gogorki arbuiazen dute eta, beste aldetik, Iparretarren-en borroka armatuak gazteak erakartzen ditu, are eta gehiago jakitean barne ibilbide oso egituratu eta batzuetan burokratizatu duela baita IK-ren bortizkeriaren aurka dagoela. Lau arrazoi nagusi ditu borroka armatua gaitzesteko: 1) iparraldeko egoera soziopolitiko berezia denez, ezin daiteke hegoaldekoari parekatu, 2) borroka armatuak iparraldeko biztanleria abertzaletasunarengandik urrundu dezake, 3) erradikalizazioak frantses errepresioaren igoera eragingo luke, eta 4) talde nahiz erakunde faxistak atentatuak egitera gonbidatuko lituzke. Eta IK-ek Goyhenetche-i egindako presio fisiko zuzenek, bilatutako eragina ukan dute zeren, 1981eko maiatzaren 5ean, Euskaldunak aldizkarian irakur daiteke: “EHAS-en jarduerak eta Euskaldunak-en argitalpenak gelditzea erabaki dugu”.

35. EUSKALDUNAK, 1978-ko otsaila.

4.2. Borroka armatuaren erabilera

Ipar Euskal Herrian borroka armatuaren erabilerak arrazoi asko ditu. Lehenik, hegoaldeko mugimendu abertzalearen eragina aipatu behar da eta, funtsean, 1960. hamarkadaz geroztik, ETaren borroka armatuarena. Bigarrenik, deskolonizazio prozesuak bere ondorioak izan ditu Euskal Herrian baita Korsikan eta Bre-tainian ere, batetik, erakutsi baitu Estatu frantsesa gailendu zitekeela eta, bestetik, askapen nazionalerako mugimenduekin identifikatu direlako. Hirugarrenik, 1968ko gertakizunak aipatzekoak dira. Garai horretan, maoismoa, trotskismoa zein anarkismoa nagusi dira, beraien aztarna uka ezina delarik. Laugarrenik, Enbataren eta ostean EHASen hauteskunde hutsegiteek, gazteriarengan ezine-gona sortu dute eta beste borroka modu batzuek saiatzera eraman ditu.

4.2.1. Iparretarrak

IK erakunde armatua 1973ko amaieran sortzen da, askapen nazionalerako erakunde sozialista iraultzaile gisa, eta bere militanteak, sentikortasun katolikoa izateaz gain, laborari mundutik datoz. Iholdy eta Baiogorri kokatuak daude batik bat.

IKri lotuak diren gertakizun aipagarrienak honakoak dira. 1973ko abenduaren 11n, erakunde armatuak Bankako mediku-pedagogia egoitzaren aurka atentatu bat egiten du, organismoak oso gatazka sozial larria ezagutzen baitu. Hainbat kide egoitzan sartzen dira eta, administrazio kontseiluko lehendakaria astindu ondoren, kontu agiriak lapurtzen dituzte. Hilabete batzuk beranduago, IK-k idatziko duen moduan, “ekintza honek nagusien errepresioari amaiera eman dio eta batez ere langileen kontzientzia-hartzea baimendu du”³⁶. Ekintza honen bidez, IK erakunde armatu bezala existitzen hasten da.

Bigarren gertakizuna, 1977ko abenduaren 23an, Xan Margirault-en atxiloketa da. IK-ko kide baten lehen atxiloketa da, funtsean jarraitzailea bada ere. Sostengu batzordeak herri ezberdinetan sortzen dira eta borroka armatuak babes soziala daukala erakusten dute. Manifestaldi ugari eta 3.500 izenpedurako eskakizuna bildu ondoren, 1978ko abuztuaren 28an, Margirault askatzen dute; IK-arentzat presio publikoari esker lortu delarik. 1979ko ekainaren 21ean igaro den epaiketa, iparraldeko gazte askoren kontzientzia-hartzearen unea izan da.

Hirugarren gertakizuna, 1980ko martxoaren 26koa da. Baionako suprefeturen aurka atentatu bat egiteko asmoa zeukan, suprefetaren emaztearen auto-pean lehergailu bat ezarri. IK-ko komandoa bi kidek osatzen dute baina, lehergailua manipulatzeko ari direlarik, eztanda egiten die. Heriotzak emozio handia sortzen du zeren, batetik, iritzi publikoak eta komunikabideek uste dute IK-k suprefetaren emaztea eraili nahi zuela, eta, bestetik, erakundeko bi kide hiltzen dira, jakinik erakundeko lehendabiziko heriotzak direla. Ondoren, komunikatue-

36. ILDO, 1974-ko urria.

tan bere helburua suprefetura zela eta ez zuela inor hiltzeko asmorik esan arren, ez da atentatuaren pertzepzioa aldatzera iritsiko.

Bortizkeriaren erabilera bi modutan defendatzen du. Batetik, burgesiak ez duela inoiz bere interes zein dominazioa kolokan jarri dezakeen ezer onartuko pentsatzen baitu. Bestetik, orduko legediak langileengan eguneroko zanpaketa gauzatzen baitu, langileak ustiatuz. Zentzu horretan, borroka armatuaren erabilera, klase borrokaren osagarri gisa aurkeztua da, gudu zehatzetan borroka armatuak laguntza ekarri baitezake. 1978ko Ildo-n irakurri daiteken erara, IK-ren borroka armatua gudu politikoaren “bermea, sostengua, sortzailea eta eztanda arazlea da”³⁷.

Bere egitasmo politikoa ipar Euskal Herrirako Autonomia Estatutu batean zehazten du. Honako puntuen inguruan antolatzen da:

1. “Lehen garai batean euskal nazioaren ezagupena eskatzen dugu. Gure beharrei erantzungo dien instituzio politiko, zibil, ekonomiko eta kulturalak nahi ditugu, euskaldun gisa bizi eta lan egin ahal izateko. Euskara bizitza sozialaren maila guztietan hizkuntza ofiziala da eta errealitate bat bilaka dadin normalizazio plan bat praktikan jarri beharko da”.
2. “Ipar Euskal Herriaren autonomiak, batasuna ezagutu beharko du eta hiru probintzietan (Lapurdi, Baxe-Nafarroa, Xiberoa) oinarritua izango da. Euskal herriaren autodeterminazio eskubidea puntu negoziatua ezina da. Ipar Euskal Herriko Autonomiak benetako baliabideak ukango ditu. Euskal Herri langileak maila guztietako arazoak bere kargu hartzeko baliabideak eduki behar ditu”.
3. “Estatu frantsesaren barruan egongo den autonomia izan arren, Ipar Euskal Herriak Hego Euskal Herriarekin nahi dituen lotura eta harremanak edukitzeko eskubidea ezagutua eta gauzatua izan beharko da”.
4. “Euskal Herriaren aurkako errepresioa geldituko da, esan nahi baita: indar errepresiboak joango direla, euskal preso politiko guztiak askatuko direla, hego Euskal Herritik datozen errefuxiatuek iparralde bizitzeko eskubidea ukango dutela”.
5. “Bere interesen arabera, ipar Euskal Herriko herriak, bere erakunde bidez, Autonomia estatutu bat definituko du”.

IK-ren atentatuen helburuak bi motatakoak izan dira: turismoa eta Estatu frantsesa, bere sinboloekin; atentatu garrantzitsuenak bigarren sailekoak izan direlarik. Jendarmeen autoak, suprefetura, CRS-en etxebizitzak ala zergen egoitza helburutzat hartu dituzte. Turismoari dagokionez, azpiegitura turistikoa, etxegintza egitasmo eta finantza espekulazioak helburu nagusiak dira, “Turismoa aski” leloak ondo laburbiltzen duena. Udan, atentatuen kopurua emendatzen da turista asko baitator. Erasoez honako helburuak dituzte: ekimen sindikatua, turis-

37. ILDO, 1978-ko uda.

mo bulegoak, etxegintza agentziak, eta abar. Lehen bi erasoak 1977an suertatu dira, koktel molotov-ak Sokoako Bulegoaren aurka jaurti dituztelarik. Bigarrena, 1977ko ekainaren 1ean izan da eta, lehergailuen bidez, Biarritzeko Victoria-Surf egoitza eraso du. Mouesca-k, ekintzak honela azaltzen ditu: “Euskal Herria ez da inoiz Côte d’Azur-a izango, gure herria ez da salgai”³⁸.

Baina, IK ez zen erakunde armatu bakarra.

4.2.2. Hordago eta beste erakunde armatuak

IK-ren alternatibarik handiena Hordago erakundea izan da. Bere burua, Jakes Borthayrou, beste hainbat bezala, Mende Berri erakundetik dator. Funtsean, 1968ko gertakizunek eraginik eduki dute beraiengan eta, rock erradikala maitatzeaz gain, kostaldeko hirietan bizi dira. Hordagok, Estatuaren eta kapitalismoaren aurka ekintza bortitzak eginez, jendea mobilizatu eta borroka aurrera eramango dela pentsatzen du. Zentzu horretan, erakundeak ez du borrokaren aitzindaria izateko nahikeriarik, guduaren tresna baizik. Irakur daiteken erara, “Hordago-k ez du epe luzerako ikuspegiarik, denetatik gaindi, garrantzitsua ekitea baita, oraintxe gauzak egitea”.

Borthayrou-k bereizketa egiten du Hordago eta ETaren artean. Bigarrenak borroka armatua praktikatzen badu, lehenak ekintza bortitzak burutzen ditu. “Ez dugu borroka armatua erabiltzen, baizik eta ekintza armatuak edo ekintza ezleгалak gauzatzen ditugu”. Hordagoren estatusa gaur egungo kale borrokarekin parekatu daiteke. Baina, bere ekintzak abertzale munduan kritikatuak izan dira. Anarkista gisa estigmatizatu izateaz gain, bere aktibismoa dela eta abertzale mugimendua urperatuko duela diote batzuek. EHASEk, bere aldetik, dio Hordagoren esperientzia “abenturista dela (...) eta polizia erakarriko duen ekintza faxista dela”.

1979ko azaroan, Hordagok Eduki aldizkarian bere kokapena zehaztu du. Hordagorentzat mugimendu abertzalea bi korrontetan zatiturik dago: bata, legitimista, frantses instituzioetan mantentzen dena, ekintza kulturalera mugatzen dena zein hauteskunde bidea hobesten duena eta, bestea, iraultzailea, Hordago bezalako erakundeek ordezkatuak. Hordago-ren lehen ekintza 1978koa da Hazparneko ekimen sindikatuaren aurka. IK bezala turismo azpiegiturak eraso ditu baita tokiko jauntxoaren egoitzak ere. Bere ekintzarik ikusgarriena Baionako justizia epaitegiaren aurka egin du 1979ko abuztuaren 11n. Oro har, 1978 eta 1981aren artean, poliziak hamabost eraso leporatu dizkio.

1981eko apirilaren 3an, poliziak Hordagoren sei kide atxilotzen ditu: Jakes Borthayrou, Jean-Pierre Halzuet, Jean-Marc Cazaubon, Isabelle Etxeberria, Renée Christine Canales eta Andrée Etxeberria, gehientsuenek 22 eta 25 urte artean dauzkatelarik. Lehergailuak edukitzea eta egoitza pribatu zein publikoen

38. EKAITZA, 285. zenb.

aurka ekintzak egitea leporatzen diete. Dirudienez, seiek 1978ko ekainaren 20 eta 1979ko irailaren 8aren artean egindako 11 atentatuak egin izana aitortu dute. Hala ere, atxiloteten unean, seietatik lau ez ziren erakundeko kideak. Eta lehendakari frantsesaren hautaketaren ostean, Hordagokoak amnistiatuak izan dira eta 1981ko ekain zein uztailean askatuak.

Alabaina, Hordago ez da erakunde armatu alternatibo bakarra izan. IK-ren adibidea jarraituz, 1976ean, *Lutte pour la Liberté et le Socialisme en Euskadi* erakundea agertu da, baita bi eraso egin ostean desagertu ere. Ondoren, Euskal Zuzentasuna (EZ) talde armatua sortu da, bere burua askapen nazionalerako erakunde iraultzaile gisa definituz. Bere lehen ekintza 1977ko azaroaren 22an burutu du bi behin-behineko lan agentziei eraso eginez. Guztira 11 eraso egin ditu eta azken biak IK-rekin batera. Dirudienez, EZ-eko kide batzuk IK-ren barruan sartu dira. Azken taldea 1977ko uztailean agertu da, Herritarrak izena hartuz. Atentatu bakar bat egin du Frantziago Tourraren aurka, Euskal Herria Frantzia ez dela erakusteko.

5. AMAIERA

Amaiera gisa gogora dezagun zein izan diren planteatutako galdera zein erantzunak. Iparraldeko mugimendu abertzaleak bere historia politikoan zehar ezagutu dituen eraldaketa nagusiak zein izan diren jakin nahi izan da. Aurreratu-tako hipotesiaren arabera, 1963-tik 1981ra doan epea, hiru garaietan zati daiteke. Lehen epearen (1963-1968) ezaugarriak garrantzitsuena mugimenduaren sorrera bada, dagokion arrazoiekin, bigarren fasea (1968-1974), funtsean, erre- presioaren aurkako norabidea zein gazte mugimendu alternatiboaren agerpenaren unea da; hirugarren garaian (1974-1981), mugimendua, sozialismorantz zein borroka armaturantz doalarik. Beraz, ageri da, egonkortasunez gain, eraldaketak egon direla erakunde eta mobilizazio mailetan. Gaiak eta erakundeak aldatzen doaz historian zehar, iraunkortasun guztiak hauskorak direla erakutsiz. Halaber, aldaketak mota guztietakoak dira, erakundeak, sustraitze politikoa, aldarrikapenak edo ideologiak ukitzen baititu. Zentzu horretan interesgarria litza-teke iparraldeko mugimendu abertzalearen historia kultural bat egitea baita ere mugimendu horretako osagai kultural zein politikoak dituzten harremanak azter-tzea.

6. BIBLIOGRAFIA

- APALATEGI, J. *Nationalisme et question nationale au Pays Basque: 1870-1976*. Bayonne: Elkar, 1976.
- BIDART, P. *La nouvelle société basque: ruptures et changements*. Paris: L'Harmattan, 1980.
- CASSAN, P. *Le pouvoir français et la question basque (1981-1993)*. Paris: L'Harmattan, 1997.
- CHAZEL, F. "Mouvements sociaux". In: Boudon, R. *Traité de sociologie*. Paris: PUF, 1992.

- DAVANT, J-L. *Histoire du peuple basque*. Bayonne: Elkar, 1993.
- DUYVENDAK, J-W. *Le poids du politique. Les nouveaux mouvements sociaux en France*. Paris: L'Harmattan, 1992.
- FILLIEULE, O. *Sociologie de la protestation: les formes de l'action collective en France*. Paris: L'Harmattan, 1992.
- FORNE, J. *Euskadi, nation et idéologie*. Toulouse: CNRS, 1990.
- GOYHENETCHE, E. *Notre terre basque*. Bayonne: Ika, 1961.
- JAMES, E. *Hills of conflict: Basque nationalism in France*. Reno: Nevada University Press, 1994.
- JAUREGUIBERRY, F. *Question nationale et mouvements sociaux en Pays Basque sud*. Paris: EHESS, 1983.
- LETAMENDIA, F. *Les basques, un peuple contre les États*. Paris: Seuil, 1977.
- LETAMENDIA, P. *Nationalismes au Pays Basque*. Bordeaux: PUB, 1987.
- MALHERBES, J-P. *Le nationalisme basque en France (1933-1976)*. Toulouse: Tolosa I Unibertsitateko Doktorego Tesia, 1977.
- MOGUI, J-M. *La révolte des basques*. Paris: Martineau, 1970.
- MORUZZI, J-F.; BOULAERT, E. *Iparretarrak, séparatisme et terrorisme en Pays Basque français*. Paris: Plon, 1988.
- RUDEL, C. *Euskadi une nation pour les basques*. Paris: Encre, 1985.
- TOURAINÉ, A. *La voix et le regard*. Paris: Seuil, 1978.
- URTEAGA, E. *Le mouvement nationaliste basque en France*. Bordeaux: Université Victor Segalen Bordeaux 2, 1995.
- . *La question basque en France*. Toulouse: Milan, 2004.
- WIEVIORKA, M. *Sociétés et terrorisme*. Paris: Fayard, 1988.